

EUSKALKIEN FONETIKA
eta
EUSKARA BATUA

J. L. Alvarez Emparanza. Txillardegi

Euskalkien kontzientzia

Betidanik dakite euskaldunek euskara bakarra eta molde bakenkoa ez dela. Besteak beste, hor ditugu J. A. Mogel-en izkribuak («Peru Abarka» liburuko elkarrizketetan bereziki), edo-ta Axular-en esanak bere «Gero»an; edo, azkeneko bat aipatzekotan, 1569-ko hauzian, Erronkari-ko Burgi-n, berariaz aipatzen diren euskalkien arteko desberdintasunak eta itzuli-beharrak (Cuadernos de Etnología de Navarra, 20, 240).

Euskalkien arteko desberdintasuna zertan datzan galdetuz gero, berriz, herriak duen kontzientzia laxatu edo ahuldu egiten bide da.

Alde batetik, jakina, hitzen desberdintasuna agertzen bide da nabarmenenik: gipuzkeraz «urruti» esaten dena adierazteko, Bizkai-ko kostaldean «azau» edo «asao» entzuten da; eta Gipuzkoan «nekatu» delakoa adierazteko, Lapurdi-tik harat, «akitu» edo «unatu» erabiltzen. Era berean, euskal hitz berberak adierazi desberdinak ditu euskalkietan barrena: «ilar», eman dezagun, gipuzkerazko «babarrun»aren kidea da Iparraldean; eta «illarra» beste landare bat izan daiteke bizkaieraz.

Bestetik, hotsek, soinuek, harritzen bide dute entzulea: «jan» hitza, lekuen arauera, [xan] entzungo da, edo [jan], edo [žan]; edo-ta [džan], afrikazio piska batekin. /j/ fonemaren ahoskuntza aldatu egiten da batetik bestera.

Ez hori bakarrik, ordea: «hilabete» hitza, esate baterako, [hilabete] esaten da zenbait lekutan, [hilaete] beste zenbaitetan, [il'atete] bestetan, eta [il'ebete] ere bai beste batzutan.

Gauza bertsua gertatzen zaio «itsaso» hitzari: [içašo], edo [içašo], edo beste; eta bardin «hartu» hitza; edo [hārtu] edo [ārtu].

Zenbait euskalkitan gertatzen diren neutralizazioak direla-ta, berez desberdin diren hitzak, nahastu egin daitezke euskalki batetik

bestera pasatzean; eta jendeak badu honen kontzientzia: «erhi», [eri], «eri» bezalaxe; edo «atso» eta «atzo», biak [aco].

Hirugarren sailean, azkenik, morfemen arteko desberdintasunak aipa genitzaizke, hauek ere euskaldunen artean oso ezagunak: Gipuzkoan «dit», Bizkaian «deust», Iparraldean «daut» edo «deit»; Guipuzkoan «gera», Bizkaian (eta ez Bizkaian bakarrik) «gara», Nafarroan «gra» edo «gare», Iparraldean «gira», «gire» edo «gia».

Diferentzia horiek guztiak, eta beste milak, betidanik adierazi diote euskaldunari euskara ez dela bakar bat, eta EUSKALKIAK daudela.

Euskalkien arteko mugak

Hori hala izanik ere, berehala sortzen dira lanak: zer da Oñatin erabiltzen dena: bizkaiera ala gipuzkera? Zer entzuten da Hazparrenen: baxenabarrera ala lapurtera? Zenbat euskalki dago? Galdera hauek erantzutea oso zaila da.

Eta kinoa ezaguna da zientziazko linguistikan: «isoglosak» ez dira beti leku beretik pasatzen.

Eman dezagun, adibide bat ematekotan, «berri» eta «barri» berezten dituen isoglosa markatu nahi dugula. Alegia, «noraino» esaten da «berri»; eta «nondik» hasten da «barri» entzuten. Bizkai betean «barri» esaten dela badakigu, eta Gipuzkoan edo Nafarroan «berri». Non da muga? Galdeketa bat egingo genuke, eta mapa bat hartu eta posible izango litzaiguke «barri/berri» isoglosa markatzea.

Eman dezagun orain bigarren isoglosa bat markatu nahi dugula: [žan], eman dezagun, bizkaiera; eta [xan] gipuzkera. Isoglosa hori ez da batere lehengoaren gain gaineretik kokatzen. Markinako euskalkian, bizkaiera zenbait alderditatik, [xan] esaten da, gipuzkeraz bezalaxe. Bi isoglosa horiek ez dira leku beretik pasatzen.

Eta gauza bera gertatuko litzateke beste edozer elementurekin: isoglosak ez dira leku beretik pasatzen. Gehien gehienez, aldaketa-zerrendak bila daitezke. Jakina: geografi-muga berezkoak oso nabarmen daudenean (itsasoa tartean, eman dezagun; edo mendi-kate gora bat, edo-ta ibai zabal bat) isoglosak batu egiten dira. Baina berez muga garbirik ez dago. Bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko muga non den galdetzeak, horregatik, berez erantzunik ez du.

Areago: bizkaierarik ez dago, funtsean. Markinako bizkaiera eta Orozkokoa, esate baterako, ez dira oso bera eta bakarra. Egia esan, euskara (beste edozein hizkuntza bezala) aldatu egiten da herri batetik bestera, eta euskalkien eta azpi-euskalkien arteko mugak non jar ez dakigu.

Eta arazo hori sail guztietan agertzen da: «hango/hanko» isoglosa, esate baterako, eta «buru/bü(r)ü» isoglosa ez dira leku beretik pasatzen.

Zein euskalki?

Hala ere, eta ideiak finkatzeko, on izan daiteke «euskalki» batzu zedarritzea. Bonapartek egin zuen sailketa-lan hau lehen-lehenik; eta orain dela mende bat egin zuen zatiketa, Azkuez gero aldatuxea, ontzat ematen da oraindik.

Sailkapen horren arauera, ZAZPI euskalki nagusi berez litezke: 1/ Bizkaiera (jakina, eta esan dugunaz, ez batere bakarra edo bakuna); 2/ Gipuzkera; 3/ Nafarrera; 4/ Lapurtera; 5/ Baxenabarrera; 6/ Zuberera; 7/ Erronkaria (hau urte hauetantxe suntsitua).

Zazpi euskalki horiek berezten dituzten dituzten mugak, ez doaz Iparretik Hegoara; baizik-eta Ipar-Mendebaldetik, Hego-Ekialdera. Zeharka bezala. Eta, jakina, Añuñemendiko katea zeharkatzen dute; muga hori berria eta artifiziala dela garbiki erakutsiz.

Goazen orain, oso laburki bada ere, euskalki horien ezaugarri nagusi batzu azaltzera.

Bokaleak

Lehen erdibiketa, honetaraz gero, bokale «ahokariak» eta bokale «sudurkariak» izaten da. Gaztelaniaz, esate baterako, balio fonologikoz batez ere, bokale sudurkaririk ez dago; baina frantsesez bai. Eta galdera hau da: euskaraz bai ote?

Zubereraz eta erronkariaraz bai; eta bizkaiera zaharrez ere bai, Madariagak, Garibaik, eta bestek, argi-eta-garbi adierazten digutenez. Geografi-distribuzio hori ikusita, hortaz, fenomeno hori zaharra dela soma liteke; eta izan ere, zaharra da. XII. mendeko A. Picaud bidariak utzi zigun lekukotasunak, zalantza gutxi uzten du honi buruz: «ardum» (= ardo, gaur ere [ařdũ] zubereraz), eta «arraign» (gaur ere «arrain» edo «arrai», kasuen arauera, eta aspaldiko [ařař] argiro agertzen delarik).

Hitz-elkarketan ere, oso garbi dago bokale sudurkari horien aztarna: ardo/ardandegi; gazta/gaztanbera; mi(h)i/mingain; katea/katenbegi; eta abar.

Baina bokale ahokari «normalak» kontutan hartuz, zenbat bokale euskaraz? Zenbat *fonema*, hobeki, bokaleen mailan?

Erantzuna erraza bada ere, itxura denez (= /i, e, a, o, u/), berehala agertzen da zalantza: eta zubererazko [ü] hori zer? Fonema maila du? Seigarren bokaletzat har daiteke?

Seigarren fonema bat baldin bada, [u] ≠ [ü] alternantziari on-dorio semantikoa dagokien bikoteak aurkitu behar lirakete. Hots, hemen aztertuko ez ditugun berezkuntzak aparte utzita, bikoterik ez dago ia-ia; eta, bestetik, [u] → [ü] itxitura, oso baldintzapen konkretutan gertatzen da Zuberoan, ia-ia «automatikoa» balitz bezala.

Hori dela-ta, euskal bokalismoak BOST bokale dituela esan daiteke eta esan behar da; eta Zuberoa-ko [ü] soinua, berrikuntza dela, eta balio fonologiko txikikoa (edo batere gabea, azken funtsean).

Euskal diptongoak

Euskalki guztietan aurkitzen dira ondoko bost hauek: *ai, ei, oi, au* eta *eu*. Adibidez: aita, zelai; sei, dei; oin, otoitz; gauza, aupa; euli, eutsi.

Euskalki guztietan aurkitzen da beste hau ere: *ui*. Adibidez: -dui (otadui), edo Nafaroako Uitz.

Lehenengo bostak, ordea, beheranzkoak dira (indar nagusia diptongoaren lehenengo partean doa: *gáuz*a (ez *gaúza*); eta seigarrena, berriz, goranzkoa (uitzi, eta ez *úitzi*).

Gaztelaniaz normalak diren diptongo goranzkoak (hacia, cuando, puesto, llovió, eta abar), euskaraz ez dira normalak; eta Azkuek, horregatik, erdalduntzat zeuzkan.

Hots, Ekialdeko euskalkietan badira horrelakoak: *maitia* (ahosk. [maitja]), *negua* bisilabikoa ere bai (= [negwa]); erran zia (= [eřancja]), hiru silabatan. Eta abar.

Lehenengo hurbilketan, beraz, euskal diptongoak *beheranzkoak* direla esan daiteke; eta *ui* delakoaren maiztasuna txikia izanik, beheranzkoak direla urrundik nagusi euskal fonetikan.

Euskal Fonetika Batuari dagokionez, beraz, bai bokaleen arazoa, bai diptongoena, erraz xamar agertzen zaigu.

Euskal hiatoak

Alderantzizko fenomenoa dugu: lehendabiziko saileko diptongoen inbertsioek, hiato ematen dutela euskaraz, normalean beti: *ia, ie, io, ua* eta *ue* silababikoak dira eskuarki. Mendia hitzak, hiru silaba ditu beraz; eta artaburua hitzak, bide beretik, bost silaba.

Ekialdeko euskalkietan hau ez da horrela gertatzen.

Bizkaiera da zailena honi buruz: materixala, subertia.

Euskal bokale alternantziak

Bi ezagunenak bakarrik aipatuko gaur: i/u delakoa, eta a/e.

Bizkaieraz /u/ agertzen den bokalea, /i/ ager daiteke beste euskalkietan. Esate baterako, «ule» bizkaieraz, «ile» gipuzkeraz; eta, era berean, «uger», «untze», «urun», «urten», «uri», «unsaur», «uzen» eta «guntzurrun», esate baterako, «igeri», «iltze», «irin», «irten», «(h)iri», «intxaur», «izen» eta «giltzurdin» beste euskalkietan. Alternantzia hau aspaldikoa da: «ule» dugu bizkaieraz, eta ez «ulle».

Oso zaharra da, era berean, e/a alternantzia: bizkaieraz «barri», gainerakoetan «berri»; «baltz» bizkaieraz, «beltz» gainerakoetan; eta, bide beretik, «garri», «txarri», «baztar», «garnu», «pipar» eta «zara», Ekialderago «gerri», «txerri», «bazter», «gernu», «piper» eta «zera» entzuten dira. Ohar daitekeenez, «-er» posizioan gertatzen da hau maizetik. Hots, *magister*-tik «maiztar» eta «maizter» sortu direnez gero, jatorrizko forma *e* dela pentsa daiteke.

Kontsonanteak: leherkariak

Bustiak kontutan orain hartu gabe, gogorra/biguna oposizioa hiru artikulazio-puntutan ematen denez gero, sei fonema ditugu, korrelazio honen arauera:

$$\frac{p}{b} = \frac{t}{d} = \frac{k}{g}$$

Oposizioa, dena dela, neutralizatu egiten da posizio askotan.

Hitz-haseran, esate baterako, ozena nagusitzen da normalean (eta areago euskara zaharrean: bake, bike, gurutz, dorre); eta B, D, G dugu. Eta hitz-bukaeran, berriz, gorra nagusitzen: -t, -k.

Bokaleen artean, -b-, -d-, -g-, fonemak frikatu egiten dira: [b̥] [d̥] [g̥]; eta erabat galdu ere bai: «deu» (= degu), «nau» (= nago), eta abar. Joera hau aspaldikoa da, eta bertako erdaraz ere ageri da: es-tao, acabao, comprao.

Leherkari aspiratuek ez dute, gaur bederen, balio fonologikorik.

Frikari/afrikatuak

Hauek ere sei dira eta korrelazioan agertzen:

$$\frac{z}{tz} = \frac{s}{ts} = \frac{x}{tx}$$

Sei fonemak ongi berezten dira euskalkietan, bizkaieraz ezik. Bizkaieraz bi neutralizazio gertatu dira, bereziki: bai «s» bai «z», [s̺] ahoskatzen dira; eta bai «ts» eta bai «tz», [t͡s] ahoskatzen, «atso/atzo», edo «ezker»/«esker» berezterik ez dago bizkaieraz.

Hitz-haseran frikaria gertatzen da nagusi, eta hitz-amaieran afrikatua. Joera hau nabarmen agertzen da euskara zaharrear: «gorputz» eta «bortitz»; baina «zeru».

Iparraldeko hitz bakan batzutan izan ezik, euskaraz ez dago frikari ozenik, ez afrikatu ozenik ere.

Gainerako kontsonanteak

Bi korrelaziotan eman daitezke hauek:

$$\frac{m}{b} = \frac{n}{d}$$

eta:

$$\frac{n}{n'} = \frac{l}{l'}$$

Eta sistematik at: /f/, /j/ eta /h/. Korrelaziotik at daudenez, galakor eta aldakor agertzen hirurak.

Bi hitz bakarrik azkeneko fonemaz, euskararen normalizazio-bidean sortu dituen eztabaidak argitzeko.

Bai akitanieraz bai Erdi-Aroko euskara zaharrez, gaur Iparraldean erakusten duen distribuzio berberaz agertzen zaigu /h/ fonema. Beraz: h-, VhV, (l, n, r) h eta (p, t, k) h. Sekula ez -h. Hitzak berak ere ezagu daitezke: olha, haitz, harri, elhorri, haran, huri, goihen, eta abar. Zori hutsaren ondorioz hori gertatzea ezinezkoa da. Baita Mendebaleko euskalkietan ere, bestalde, h-ari buruz aldatuenak, ahoskera silababiko batzuk dira egoera zaharraren lekuko: «nas» (= naiz), baina «nais» (= nahiz); [baɪ] baina [bei] (bi silabatan, = behi).

Ohar bakar bat /r, rr/ fonema-bikoteari dagokionez. Gaur bi fonemak ongi berezirik ere (Lapurdiko kaletarren artean salbu, [R] neutralizazioa dela-ta: barre = bare, t. a.), antzinako hitz batzuren moldeak dardakari bakar baten egoera idarokitzen dute: lubizi, biharamun, iztaklok, hamalau, hamabi, eta abar.

Kate mintzatuko neutralizazio nagusiak

Kontsonanteen baranoan, sandhi bidez gertatzen diren hiru neutralizazio famatuena gogoraziko ditugu:

$$1/ (l, n) + (p, t, k) \rightarrow (l, n) + (b, d, g)$$

Barne-sandhietan (hitz barruan, alegia) oso orokorra da aldakuntza hau, eta erdaratikako mailebuetan ageri da garbikienik: denbora, aldare, jende, borondate, eta abar. Fonetika-joera hau baita ondoko erdaretan ere atxiki da: brango, planda, eta abar.

Halaz ere, ozenkuntzarik gabeko aldakiak ere badira Ekialdeko euskalkietan: denpora, althare, jente, boronthate, etab.

$$2/ (l, n) + (z, s, x) \rightarrow (l, n) + (tz, ts, tx)$$

Joera hau oso bizia da gaur ere: [alca poŕu]. Mailebuetan ageri da hau ere garbikienik, eta barne-sandhietan bereziki: galtza, faltsu, dantza, entseatu, antsia, etab. Ekialdeko euskalkietan ez da hau ere beti gertatzen: [alsai] eta [alcai]; eta aspaldiko denboretako grafia batzuk ere oinarri fonetikoak ote duten ez dakigu: «ençun», «arçai», eta abar.

Bi sandhi hauetan, /r/ -rekiko joera ez da besteekikoa bezain segurua; baina lege fonetiko berbera onartzeko joera dago: Unibertsi-tate.

$$3/ (tz, ts, tx) + (b, d, g) \rightarrow (z, s, x) + (p, t, k)$$

Esate baterako: Aizkorri, Aizpitarte, Aspe, hizpide, hozpera, hasperri, etab.

Euskal prosodiaz bi hitz

Bai entonazioaz, bai azentuaz ere (edo-ta tonuaz agian), oso gutxi aztertu da gaur arte euskal prosodia.

Aldé batetik, eta bazter-euskalkietatik kanpo (zuberera, bizkaiera), azentuak ez du balio fonologiko garbirik. Zubereraz (eta antzinako lapurteraz ere bai, gutxienez) badu: elíza / elizá; alhába / alhabá. Eta bizkaieraz ere bai: *orrék* / *órrek* (*orrék* esan dau, baina *órrek* joan direz, esate baterako). Zubereraz (eta Ahuñamendi alderdiko baxenabarrerak) aurkitzen dugun azentu-mota berezia (= -2, atzetik hasi eta bigarrenengan markatzea) erromanikoa dela diote batzuk, Azkuek bereziki.

Bego, beraz, hau bere horretan gaurko hitzaldi orokor honetan.

Euskara Batua eta euskal ortoepia edo ahoskera batua

Euskaltzaindiak ez du arazo honetaz ezer esan; eta beldur da ezer esateko. Baina urrats hau emateko beharra, behar gorria da; inoiz, eta aurki agian, euskal telebista eta irratia izanez gero, fonemak eta kate mintzatu osoa NOLA AHOSKATUKO DEN erabaki beharko baita; nahiz, jakina, euskalkizko esakerak zertan gaitzetsi beharrik ez badago ere.

Proposamendu batzuk eginak ditut nik Bergarako Biltzarre Nagusian (1978.ko Irailean, ikus «Euskera» XXIV, II). Bi txosten horiek orrialde hauetan aurki daitezke: 607-613 eta 683-691. Hauetako lehenengoan esaten denez, 1968.ko Txostenean, eta lerro artean, fonetikari buruzko irizpide funtsezko batzuk eman ziren; baina honi zerraizkion ondorioak ez dira geroztik atera. Esate baterako: II, 2,9; II.4.c; II, 4, d; eta II, 15, d.

Bestetik ere, eta aurreko lerro horien irakurreraz konpreni daitekeenez, zenbait sailetan oraingoz ezer proposatzerik ez badago ere, beste zenbaitetan aldiz bai, eta arrisku larririk gabe.

Bokaleei dagokienez, esate baterako, /i, e, a, o, u/ boskotea proposa daiteke; eta diptongoei dagokienez, beste boskote bat: /ai, ei, oi, au, eu/. Alderantzizkoetan, itzuletara, ahoskera bisilabikoa izango genuke: [ia, ie, io, ua, ue]. Honek, halere, ondorio beldurgarriak izan ditzake deituren irakurreran: Azkúe (hiru silabatan, eta ez bitan; eta honetan Euskaltzaindiaren aitaren nahia betetzen dugularik); Ortue-ta (4 silaba), Ariztegieta (6 silaba), eta abar. Zenbait mailebutan, bide beretik, diptongo goranzkoak ez onartzea zailegi gertatuko bide litzateke: sozialismo (5 silaba, eta ez 4).

Bokale sudurkaririk ez onartzea litzateke, ordea, ekonomikoena eta errazena.

Leherkarietan, ozen/gor oposizioa onartzea aski (eta bokale artean frikari modukoa, gaztelania bezalaxe).

Frikari/afrikatuetan, eta jadanik Nicole Moutard-ek proposatu duen neutralizazioa ontzat ematearen kontra (alegia, bizkaieraren joera ontzat ematearen aurka, hitz gutxitan), sei fonemak ongi ahoskatzea eta bereztea eskatu behar litzateke. Frikari eta afrikatu ozenak zertan ahoskatu beharrik ez dago, ordea.

Bustidurari dagokionez, nik neuk, orain xeheki azalduko ez ditudan arrazoinengatik, [langi] edo [baŋa] hobetsiko nituzke (alegia, [laŋgile] eta [baina] baino hobetzat emango). Baina /11/ fonema [j] ahoskatzea ez nuke inolaz ere onartuko. Era berean, /rr/ fonema-

rentzat [r̄] ahoskera apikaria eskatuko nuke, [R] frantsesairea txarretsiz.

/h/«madarikatua»ri buruz, berriz, nik hau proposatuko nuke: EZ AHOSKATZEA. Geure artean ditugun [exaś] eta [xaśi] aski ditugu, fonetikaren arloan, etor dakigukeena somatzeko...

/j/ fonemaz, beste alde betetik, nik [y] proposatuko nuke, gaztelaniazko «y» alegia: [ýan], [ýauna]; honela idatzirik baileudean: «yan», «yauna».

Bokaleen elkarketari dagokionez, lau lege hauek onarraraziko nituzke:

- (1) ee → ie
- (2) oo → uo
- (3) ea → ia
- (4) oa → ua

Etxieta, zoruok, maitia eta besua izango genituzke, beraz, ahoskeraren aldetik, eta ez etxeetan, zorook, maitea eta besoa. Hau proposatuz, beste erregela batzuk proposatuz bezala, ongi dakigu gaur egiazki *entzuten diren* ahoskera batzuk baztertzen ditugula. Baina gauza bera esan dezakete /h/ ahoskatzen dutenek, «baina» bustidurarik gabe esaten dutenek, eta gainerakoek.

Kontsonanteen sailean, berriz, eta «ez» adberbioak duen maiztasunarengatik batez ere, bi lege hauek onarraraziko nituzke:

- (1) (z, s, x) + (b, d, g) → (z, s, x) + (p, t, k)

Adibidez: ezta, eztator, ezpedi, ezpada, ezkara, eta abar, idatzirik baleude bezala. Eta ez: ezda, ezdator, eta abar, euskal fonetikaren kontra erabat, 1968.ko Txostenean bertan ere argi eta garbi esan zen bezala.

- (2) (tz, ts, tx) + (b, d, g) → (z, s, x) + (p, t, k)

Eta hau honengatik batez ere: euskal leku-izenen ahoskera ez zeharo aldrebesteko eta hondatzeko.

Azentuaz ezin ezer esan. Agian, eta lehen hurbilketa gisa, jokabide hau onar liteke: sintagmen *bigarren silaba* markatzea (aurretik hasita). Batásuna, eta ez batasúna; biltzarre nagúsià, eta ez biltzarre nagusía. Baina prosodiaren arazo hau askoz ere gehiago landu behar litzateke; erdalduntzat jotzen ditugun ahoskera batzu, egiazki entzun baitaitezke gaur hemen edo han. Eta alderantziz.

Eta gaurkoz besterik ez.